



## PRENTSA OHARRA

### EIKENEK ZAMUDION AURKEZTU DU 2009-2011 PLAN ESTRATEGIKOA, EUSKAL IKUS-ENTZUNEZKOEN GARAPEN LEHIAKORRAREN LIDERRA IZATEKO

- **2008ko txostenak Basque Audiovisualaren bidez sektorearen nazioartekotasuna bultzatzeko plana finkatu dela nabarmendu du.**

Zamudio, Ekainaren 25a. Eiken – Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak gaur aurkeztu du bazkideen Batzar Nagusian lehen Plan Estrategikoa, Euskal Ikus-entzunezkoen Sektorearen garapen lehiakorraren liderra izateko proposamena jasotzen duena. Dokumentuak sektorearen gaitasun lehiakorra zehaztuko dituzten alderdi giltzarriak aurreratzen ditu, Porter diamanteren metodologiaren arabera. Eikenen arabera, lehiakortasunaren osagai giltzarriak honako hauek dira: nazioartekotasuna, talentua, berrikuntza eta aukera berrien bilaketa, Ikus-entzunezkoen munduan ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko moduan gertatzen ari den iraultzatik abiatuta.

Digitalizazioaren eta teknologia berrien testuinguruan, Eikenek negozio tradizionala lekuz aldatzen ari den **“ikus-entzunezko negozio berriaren”** sorrera baieztatu du; dena den, lehenengoak fakturazioaren zama nagusia hartuko du oraindik datozen urteetan. “Ikus-entzunezko negozio berri” horren ezaugarriak dira TDTrako edukien ekoizpena, hainbat euskarritarako (telefono mugikorak, Internet, tokiko TBak) “low cost”-en sorreran eta ekoizpenean espezializatzea, eta zinemako nahiz TBko edukiak gailu mugikorretara egokitzea. Era berean, soluzio interaktiboen bilakaeran bereizten da, e-Administrazioiko edukiak hornitzen ditu, aisialdia du ardatz nagusi eta lehenesten duen publikoa 45 urtetik beherakoa da.

Testuinguru berri honetan Klusterrak eginahalak egingo ditu EAEn nagusi diren zerbitzu tradizioaletako ekoizpen etxeek eta enpresek **beren negozio nagusia bultzatu dezaten lehiakortasuneko hobekuntzen laguntzaz (prestakuntza, kalitatea, nazioartekotasuna), eta, aldi berean, negozio berrietan sartzeko aukerak bilatu ditzaten.** Horren harira, Eikenek enpresen garapena bultzatzea proposatzen du beren lehiakortasuna etengabe sustatuta, berariazko prestakuntzaren, berrikuntzaren eta zerbitzu aurreratuen hornikuntzaren bitartez eta talentuaren aldeko erronkari garrantzia emanez; izan ere, alderdi hori erabakigarria da sektorearen arrakasta lortze aldera.

Era berean, Klusterrak enpresa egitura egokitua garatu nahi du, euskal enpresen tamaina txikiak eragozpen garrantzitsua izan ohi baita sektorearen garapenerako. Eikenen lehentasunezko lan ildoan dago, halaber, nazioartekotasuna eta kanpoko merkatuetara ateratzea. Horri dagokionez, Basque Audiovisualaren laguntzaz Cannesko azoka nagusietan (MIPTV, MIPCOM eta MIF) gure sektorearen presentzia finkatu da, eta aurrera begira ildo hori landuko da Klusterraren Nazioarteko Planaren bidez.

Bestalde, Eikenek antena hargailu gisa jokatu nahi du abangoardiako jakintza enpresen eskura jartzeko, eta sektoreari aurrera egiten laguntzeko zehaztutako estrategiaren norabidean. Izen ere, negozio berrien garapenak jakintza sortzeko eta partekatze ahalegin handia eskatzen du. Klusterrak enpresa eragiketak ere lagunduko ditu (enpresa berrien sorrera, fusioak, Euskaditik kanpoko enpresetan inbertitzea, eta abar), bere bazkideen edo Administrazio publikoaren ekimenez sortzen baldin badira eta haien helburua sektore osoaren **garapen lehiakorra garatzea baldin bada.**

Izan ere, Eikenek azken hilabeteotan hausnarketa estrategiko sakona egin du eta horri esker Euskal Ikus-entzunezko Sektorearen ahulguneak eta indarguneak diagnostikatu ahal izan ditu, Sektoreko Berrikuntza Agendaren barruan sartuko diren ekintzak mahai gainean jarriz, sektoreko enpresen lehiakortasuna bultzatzeko xedearekin. Testuinguru horretan nabarmentzekoa da gidioen gaineko prestakuntza eskaintzeko irailan martxan jarriko den proiektua. Gidoi Faktoria proiektu berritzailea da eta Euskadi erreferentziako lekua bihurtu nahi du gidioen prestakuntzan. Edukien enpresa nagusiek eta EITBk babesten dute egitasmoa eta egoitza EITBn bertan egongo da.

### **2008ko urteko txostena**

2008. urtean Eiken-Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak hogeitabi bat ekintza abiarazi ditu bere lehentasunezko lan arloetan (Teknologia Berriak, Kalitatea eta Kudeaketaren eta Prestakuntzaren Hobekuntza, Merkatu Berriak, Edukiak eta Azpiegiturak), **horien helburua enpresen lehiakortasuna hobetzea izan da.**

Ekitaldian eginiko ekintza nagusien artean, Prestakuntza hobetzeko arloan egindako batzuk nabarmentzen dira. Duela bi urte, Eikenek eta Eusko Jaurlaritzak Ikus-entzunezkoen Sektoreko Profesionalen Kualifikazio Profesionala Hobetzeko Plan Integrala abiarazi zuen. Proiektuak aurreikusten zituen; alde batetik, ikus-entzunezko sektorearen prestakuntza beharrak; eta bestetik, pertsonen lan esperientzian eskuratutako gaitasuna aitortzea eta egiaztatzea. Horren jarraipen gisa, **Eikenek Sektoreko Prestakuntza Plana** aurkeztu du eta lan talde zehatza eratu du enpresetako premia zuzenei erantzungo dieten ikastaroak aukeratzeko. Horren helburua profesionalen lehiakortasuna hobetzea da.

Merkatu Berrien arloan, joan den urtean **Basque Audiovisual** marka nazioartean finkatzea lortu zen. Eiken Sektoreko enpresa nagusien presentzia bultzatu zuen ikus-entzunezko azoka nagusietan (Cannesko MIPCOM eta MIPTV), Basque Audiovisual izenpean denak elkartuta. Izan ere, Basque Audiovisual sektorearen ikur gisa finkatu da nazioartean. Oro har, enpresa guztiek ikusten dute Basque Audiovisual nazioarteko merkatuaren alde egiten dutenei laguntzeko plataforma gisa. 2009. urtean Klusterrak Euskal Ikus-entzunezkoak kanpoan sustatzeko eginahalak areagotu ditu, enpresek gehien babesten duten erronketako bat delako.

Horrez gain, joan den urteko ekitaldian Animabasque-Business animazioko azoka antolatu zen lehenengoz — bigarren aldia aurtengo apirilean egin da—. Ekimen horren bidez, hainbat euskarritarako animazioko produktuak egiten dituzten enpresei laguntza eman nahi zaie merkatu berrietara sartu daitezen. Azpi-sektore horrek hazteko aukera handiak ditu, Eikenek jasotako datuen arabera.

Edukien Batzorde estrategikoaren barruan, 2008. urtean Eikenek EikenBANK proiektuaren lehen aldia egin zuen; ziur asko, Klusterrak garatutako ekintzarik berritzaileena. Horren helburua da **talentu sortzailea bilatzea Euskal Ikus-entzunezkoen Sektorean profesional berrien sarrera errazteko**. Ekintza sari baten inguruan egituratzen da, profesionala ez den sortzaile batek aurkeztutako proiektuaren (dokumentala, filma, telesaila, lehiaketa, ...) garapenean oinarritzen dena. 2008ko irabazleak lan egiteko aukera izan du 3koma ekoizpen etxean eta bere ideia "Pintxos" saioaren oinarria izan da, duela gutxi ETB-2n emandako saioa.

EikenBANK finkatutako proiektua da, erakundeen nahiz enpresen babesa lortu duena. Aurtengo irabazlea ekainaren 9an izendatu zen eta bere ideia K 2000 enpresan garatzeko aukera izango du.